

LEO BUERIBERI, AINHOA PARDINA

Hizkuntza murriztuen aniztasuna, ikuspegi monoglotatik haratago

2025-01-29



PLAZA

Aniztasuna abiapuntuko begirada modura hartuta, hizkuntza gutxituen egoera aztertzen hasi, eta hiztunengan arreta jartzen bukatu genuen 2025eko lehenengo saioan, Leo Bueriberi eta Ainhoa Pardina bidelagun. Saioak, ondorio nagusi gisa, gaur egun jada baden eta etorkizunean ezinbesteko errealitatea izango den hizkuntzen eta hiztunen aniztasuna aukera onuragarritzat hartzea izan zuen. Beti ere, hizkuntza gutxitu baten hiztunek gainerako hizkuntzekin izan beharreko harremana konplexua eta askotarikoa izango dela kontuan hartuta. “Hizkuntza hegemonikoak”, “harreman asimetrikoak”, “harrera komunitarioa”... Bezalako kontzeptuak izan ziren mintzagai.

ZAZPI JAUZI

1. Euskal gizartea eleanitza da, eta gero eta eleanitzagoa izango da. Eta herritarrak ez dira horren kontziente. **Euskal Herrian gaur egun 100 hizkuntza bizi direla, eta etorkizun hurbilean gehiago biziko direla** behin eta berriz esan behar genuke: gure ohiko diskurtsoan integratu behar dugu.
2. Noski, hizkuntza horien arteko harremana ez da simetrikoa, eta bizikidetza gatazkatsua da. Hala ere, hizkuntzen artekoaz baino, hiztunen arteko harremanaz hitz egin behar dugu: Hizkuntzen arteko harremana eraikitzen da ematen zaion erabileraren arabera. Beraz, hiztunak dira beste **hiztunak zapaltzen dituztenak, ez hizkuntzak**. Zapalkuntza horretan, hainbat eta hainbat faktore sartzen dira. Adibiderako, arraza: hona bizitzera datozenei, zuriak ez badira, gaztelania ikasteko esaten diete. Hona etortzen diren zuriei, berriz, errazago esango diete euskara ikasteko.
3. Adi ibili behar dugu hainbat sektore euskaltzaletan zabaltzen ari diren diskurtso arriskutsuekin, arrazismoa eta xenofobia baitute oinarri. **Euskara hizkuntza aniztasunarengatik arriskuan egon daitekeela pentsatzea akats handia da**. Horren atzean estrategia bat dago: errazagoa da zapalduta dagoen pertsona batek bera baino zapalduago dagoen norbait zapaltzea, edo berari errua botatzea, zapaltzaileari baino. Nolabait, egoera hegemonikoan daudenek horrelako mezuak zabaltzen dituzte eta, horrela, hegemoniaren aurka jo beharrean zapalduon artean bata bestea gehiago zapaltzea sustatzen dute.
4. Aurrekoari buelta eman behar zaio, eta argi izan: hizkuntza-aniztasunaz kontziente den, eta hori behar bezala kudeatzeko saiakera egingo duen gizarteak onura asko izango ditu. Jokaleku berri batean egongo da: **gizarte elebidun bat helburu izatetik, euskara ardatz duen gizarte eleanitz bat helburu izatera pasako ginateke**. Euskara, kokagune hegemonikoan; eta gainerako guztiek, bakoitzak bere lekua, modu orekatuan, kudeaketa-sistema errealista baten bidez ordenatuta. Utopia usaina du, baina posible da.
5. Hizkuntzen eta hiztunen aniztasun gero eta handiagoaren arrazoi nagusias euskal herritar berrien etorrera da. Horrekin lotuta, **inmigratioak onurak dakartzala ari gara behin eta berriz esaten. Baina, ez badakartza ere, zer? Ez daukagu guztiari beti onurak edo probetxua ateratzen ibili beharrik**. Eta, esaten dugunetik haratago, badugu kanpotik datozenengandako interesik? Eta, interesik ez badugu, eskatu diezaiekegu zerbait? Badugu zilegitasunik horretarako?
6. Gauza batzuk gaizki egiten ari gara. Nola euskaldunduko da migrantea, iristen den lekuan, hasiera batean, ez badauka ezta harremanik ere? Pertsona bat iristen den unea, hasiera-hasierako elkartrukeetan, gauza asko gertatzen dira, hizkuntzatik haratago. Eta “gertatzen diren horiek” dira garrantzitsuenak. Prozesua luzea eta konplexua da: lehenengo harremanak sortu behar dira, eta gero etorriko da hizkuntzen kudeaketa. **Harrera ezin da linguistikoa bakarrik izan: komunitarioa izan behar da**.
7. Egiten dugun guztia, egoera zehatzei erantzunez egin behar dugu: egoera errealei erantzun organikoak emanez. Ezin dira hizkuntza-irizpide orokorrak besterik gabe jarri eta betetzen saiatu. Eta printzipio bat izan behar dugu beti gogoan: **hizkuntzek ez diote, berez, elkarri lekuri kentzen, ondorioz, hiztunek elkarri lekuri kendu ez diezaioten egin behar dugu lan**.